



Andoaino Udala



Andoainera iritsiko da aste honetan Tolosaldeko Mankomunitateak hondakinen gaikako bilketari buruz martxan jarri duen sentsibilizazio kanpaina berria: ‘Eman aurpegia!’

Andoainen, 23-11-21.- Tolosaldeko Mankomunitateak adierazi du “asmo handiko lan-plan baten aurrean” daudela, Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten 28 udalerrietako herritarrek gehiago eta hobeto birziklatu dezaten. Hiri-hondakinen gaikako bilketaren tasa % 66,98koa da (2022. urtea), Europako Zuzentarauak 2025erako ezarritako helburua gaindituz (%55,0). Hala ere, euren konpromisoa ezarritako helburuak lortzea ez ezik (% 5eko igoera 2030erako eta % 10ekoa 2035erako), horiek gainditzea ere badela adierazi dute.

Tolosaldeko Mankomunitateak abian jarritako lan-plan honek helburu izango du mankomunitatearen parte diren 28 udalerrietako hondakinak kudeatzeko ildo estrategikoen berri ematea herritarrei, Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuei balioa ematea eta hondakinak kudeatzeko hiri-altzariak berrerabiltzeko, birziklatzeko eta zaintzeko ohiturak areagotzea. Halaber, ekonomia zirkularra deiturikoan eta 2030eko Garapen Iraunkorreko Helburuetan txertatzen dira ekintzak, ingurumenari buruzko legerian jasotakoa betetzeko. Gainera, elementu eta instalazioen berri emango da, hala nola edukiontziak, hondakinen ekarpen-puntuak, garbiguneak, zalantzak argituko dira eta erabiltzaileek eskubideak eta betebeharrak ezagutzen lagunduko da. Hori guztia bildutako hondakinen kantitatea eta kalitatea hobetzeko asmoz.

Kanpainaren leloa, ‘Eman Aurpegia!’ izango da. Herritarrek eskuz esku izango dute kanpainaren berri ezagutzeko aukera, datozen egunetan informazio-puntuak izango baita herriko puntu ezberdinetan.